

13

Milla-bederatzi-eun eta seigarren urteko Uzta-illaren zortzi-an

GUIPUZKUAKO DIPUTAZIO GUZTIZ ARGIDOTARRAREN AURREAN

Zabala-ko Alfonso Maria-k

Hernani-ko Abade-nagusi Jaunak

Santa Maria deritzon Donostiako

Elizan eman zan Meza-nagusian egin zuan

SERMOYA



Lenengo aldiz argitaratua EUSKAL-ERRIA-n



SAN SEBASTIAN

IMPRENTA Y ENCUADERNACIÓN DE J. BAROJA É HIJO

Plaza de la Constitución, 1, 2 y 3

1906

ATV
24402



H- 50324

F- 50320

ATV
24402

Milla-bederatzi-eun eta seigarren-urteko Uzta-illaren zortzi-an

GUIPUZKUAKO DIPUTAZIO GUZTIZ ARGIDOTARRAREN AURREAN

Zabala-ko Alsonso Maria-k

Hernani-ko Abade-nagusi Jaunak

Santa Maria deritzon Donostiako

Elizan eman zan Meza-nagusian egin zuan

SERMOYA



Lenengo aldiz argitaratua EUSKAL-ERRIA-n



SAN SEBASTIAN

IMPRESA Y ENCUADERNACIÓN DE J. BAROJA É HIJO

Plaza de la Constitución, 1, 2 y 3

1906

THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS

THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS

2 ERM OYA



SERMOYA

Dominus Deus noster ipse eduxit nos et patres nostros de terra Ægypti et de domo servitutis.... Gure Jaungoikoak berak Ijitoarren mendetik eta morrontzako ehetik gu eta gure gurasoak libratu ginduan (Josue cap. XXIV. V. 19).

Apezpiku Jaun guztiz beneragorria (1).
Gipuzkuako Diputazio oso argidotarra.
Donostiako Ayuntamiento goidiatia,
Osterontzeko Euskal-erriko Alkate prestu eta
nere anai euskaldun maiteak.

* * *

Zuek geyenok usteko dezue, Gipuzkoako Diputazioak, probintzian arkitu litekean sermoigillerik bikañena eta jakintsuena arkitu duala gaur Santa Maria Donostiako Eliz galant eta eder onetan egiten ari dan Eliz-punziorako; ordea, euskal-pesta onek onela eskatzen eta onela merezi bazuan ere, zorigaiztoan ez da ala gertatzen. Alde batetik adiñean edo urteetan aurreratu nago, nere buru zuriak adierazten dizuten bezela, eta langai oetarako bear litzeke odola bero eta sasoya sendo, zartasunak berez ezer guchi eman lezakealako; bestetik berriz, abade jakinduri laburrekoa, eta euskal-itzkuntzan ere ez gañenekoa, eta emen egiten dan pestaren auditasunari bear bezela eranzungo ez diona.

Ezeyezute ordea neri kulparik egotzi, nere egitekoari bear bezela kumplimentu ematen ezbadiot, ezpada nere indarrez gañ dagoan lan

(1) Vitoriako Apezpiko Jaunak Meza-nagusia eman zuan.

au komendatu diratenai. Egia da, neri egiten zaidan onra au estimatzekoa dala eta lan onetarako ukatzea, prestuezkera eta umiltasunaren palta iduritzen zitzaindan; beragatik bada, ezer guchi nigandik espero baditeke ere, zuen bigüñtasun eta errukian pio naiz; aitortzen det alabaña, sermoigille batek bear dituan kondizioetan edozeñek gañez egingo badit ere, nere jayot-erriari diotan amodioan, erriaren zaintzalle diran zaldun noble oenganako errespetoan eta gure fuero edo lege zarrenganako naitasunean ez azkenengoa, baizik aurrenengoetakoa izan nai dedala; eta onela izateak, bestetik palta zaidan indarra eta kemena emango dit.

Nola nere asmoa dan zuei makiñachobat gauza esatea, guztiz argi mintzatuko naiz, senzillotasun guziaz itz egingo det, baserritar euskaldunak perian alkarrekin itz egin oi duten bezela, nik eskola batean, denak jakitsuak diranen aurrean itz egin bear banu, Aita Larramendiren Iztegia, edo beste libururen batzuek artuta, itz egingo nuke, askok egiten duten bezela, euskera bera sumatu zuanak ere adituko ez lirakean moduan, ordea ala egiñaz, eliz onetatik irtetzean galdetuko balizuteke norbaitek ea sermoya gustatu zaizuten, eranzungo zendateke: tutik ere ez diogu aditu; euskaldunak giñala uste genduan, euskeraz itz egin duala esan digute, baña ingelesez itz egin balu bezela gelditu gera. Nik naidet ordea denok entenditu zaidazuten, denoi asko diojuakigun gauzan adierazi nai dituatoko.

Orain gauza batek goata ematen dit. ¿Badakizute zer dan? Zer gaitan itz egingo ote dedan. Pesta au, eliz-pesta izan arren, ez det uste elizara gaur etorri zeratela, misio batera bezela, inpernuaren, edo azkenjuizioaren gañean sermoi izugarriren bat entzunda bereala konpesatzeko asmoan, orretatako garizuma ezdala esango dezue, eta au etortzean ondo konpesatzeko neurriak artuko dituzutela; zuek gaur naidezutena dala euskal-erriari dagokion zerbait enzutea, kontu egin dezagun ea gure buru eta zaintzalle diran zaldun prestu oyek euskal-erriaren alde zer egiten duten; ea gure oitura eta lege zarrak (ordu charrean kendu zigutenak) ostera greganatzeko ichurarik ote dagoan; ea gure itzkuntz anziñakoa osotoro galtzeko arriskuan arkitzen dan; itz batean esateko: ea gure guraso zar Aitorren semeen izenik merezi degun.

Nere iritzia ere au da: badakit misio baten bezela gaur itz egin bear ezdedala; ez da fedeko misterioaren bat argiratuaz ere. Gauza guziak badituzte euren trenpeak, erak eta sasoyak, onela egiten du nekazariak ere ber lanak ondo irtetzea nai duanian, sasoyan erein, sasoyan eldu eta sasoyan bildu.

Beste eraozmenbat ere euskal-sermoigillearentzat sortzen da: gure itzkuntza ez dala prestatzen edozein gaitan itz egiteko; gaztelauak, pranzasak, italianoak eta beste itzkuntza modu askok, zenbait esaera artzen dituzte griegotik, ebreotik, arabeetatik eta beste itzkuntz askotatik, eta onela, besteren soña jantziaz apaintzen dira, eta beste modutara ezin esan ditezkean gauzak adierazten dituzte; ordea gure euskera garbiari orrelako naspillarik, altzerriko itzkuntz moduakin alkartzetik gustatzen etzayo; gure izkera apartekoa da, gure arraza apartekoa dan bezela, eta gauza onek beste arrazoy askoren artean argitaratzen du zenen antziñakoa dan, askoren iritzian nunduan lenengo itz egin zana. Orregatik diot bada, eraozmen bat dala edozein gaitan gaur itz egitea, bada, zenbait atzerriko itzketak modu euskarara biurtzea alde batetik zalla da, eta bestetik berriz zuzen biurtu arren ez ditu edozeinek entenditzen.

Eta geyago itzaurre au ez luzatzeagatik, diot, nere pensamentu guzia dagoala sermoi onen buruan aipatu dituan itzetan: *Dominus Deus noster, ipse eduxit nos et patres nostros de terra Aegypti et de domo servitutis*. Gure Jaungoikoak berak Ijitoarren mendetik eta morrontzako echetik gu eta gure gurasoak libratu ginduan. Esan nai du: Jaungoikoak berak, euskaldunak libreak egin gaituala, iñoren uztarpean jarri gabe. Orretarako dira gure lege zarrak, gure fuero beneragarriak, gure oitura anziñakoak. Eta zenbateta Jaungoiko eta gurutzearen gertuago, anbateta doatsuago eta libreago.

Ona euskaldun maiteak nere itzaldiaren gaya. Aita Ignazio santuari, euskaldun leyal ta prestuari nai dakiola ondo, chukun eta garbi adieraztea, orretarako zerutitako laguntza beardet, eta au logratuko degu, aldare orretan arkitzen dan, eta donostiarrak aiñ maite duten, imajiña santa orrek adierazten duan zeruetako Erregin Maria bitartekotzat jarten badegu. Esan zayogun bada lelaunikaturik Aingeru Gabriel Santuak esan zion itzak

Agur Maria.

Dominus Deus noster ipse eduxit nos et patres nostros, etcétera, etc., etc.

Apezpiku Jaun guztiz beneragarria.
Gipuzkoako Diputazio oso argidotarra.
Donostiako Ayuntamiento goidiatia
Euskal-erriko alkate prestu eta osterontzeko
nere anai euskaldun maiteak.

1.^a Zenbait gauza, batek dauzkanak estimatzen ez dira, pensamentu bakar bat ere egiten ez dalako, gauza ura gabe doakabea izango litzekela. Argiago mintzatuko naiz: Illuntasunean bizi direnak jakin al-balezateke guri eguzki ederrak argi egiten digula, esango luteke. ¡O ayen lurrean nor legokean! ¡Orrelako eguzki ederrak argi egiten duan leku zorionekoan nor bizi litekean! Enbidiaz lertzen egon lirake. ¡Eta gu berriz, eguzkiaren argi sortak argitzen gaituzten bazterrean, edertasun au aintzakotzat artu gabe bizi gero! ¡Gure eskuan egon onela bizitzera eta aurrera onela bizitzeko pensamentu bat ere egin gabe! ¿Zer izango litzake guzaz ayen gau illuna gugama baletor? ¿Ondorengoai zer kontua eman bearko ezgeñieke gure kulpaz, gure arduragabekeriz eguzki ori itzali albaledi?

Bada euskal-erriko zoriontasunarekin auñe gertatzen da. ¡O zeñen zorionekoak diran euskaldunak euren lege zar eta fueroekin diote atzerrikoak! ¡Oyek bai direla libreak, oyek bai dirala eurren buruen jabeak, oyek bai ezdutela inñoren morrontzarik ezagutzen! ¡O! oyek bezela nor legokean! ¡Oyen lurrean, oyen agintari edo buru diranen mendetasun gozoan nor bizi litekean!.....

Eta gu berriz, zoriontasun au, morrontzan bizi, edo betiko libre izan aintzakotzat artzen ez degu. Euskaldun prestuak, ¿au zer da? Aitorren semeak, aiñ burugabeak, aiñ euren zoriontasunaren etsayak noiztik norra dira? Gure etsayak enbidiaz lertzen daude, batean puska bat, bestean aundiagoa, gure eskubideetatik, zakur amorratuen gisa kentzen digute; eta gu berriz odolik ezbagenduke bezela, auldu bagiña bezela, euskal-arrazakoak ezbagiñake bezela, olloen antzera dena sufritzen degu, gure ontasunarekin aztuta, atzerriko auzietan sartuta, alkar eziñ ekusirik ga biltza, eta bianbitartean gure lege zarrak, gure fuero beneragarriak, gure oitura garbiak, gure libertadeak galtzeko arriskuan daude..... euskaldun prestuak, galdetuko dizuet berrizere: ¿Zoramen au zer da?

2.^a Gure etsayak, gu ayek bezela ekusi nai izatearekin ez dira asezten, alduten gaitz guztia egiten digue; gure kondaira garbia eta gure legeak gordetzeko daukagun eskubidea ere ukatu nai digute; orretarako inzkribatu izan dute, guk, Gipuzkuatarrok, Alfonso zortzigarren denboran Gaztelara alkartu giñanean, ez giñala borondatez alkartu, ez bada indarrez; gure legeak gureak ez dirala, baizik gaztelako erregeak borondatez emanak, eta borondatez ematen dana, borondatez ken litekeala, eta izatez ere kendu egin bear zaigula, atzerriko gendeak ere lege ayen diña badiralako, eta denok berdin eta lege baten mendean bizi bear degulako.

Orreraz gañera, beste batzuek badira diotenak, gu, kristau izatea ere gaztelauai zor diegula, gaztelara arabeak etorri ziranean, onera, gure mendietara, gaztelatik igesi etorri zirenak gu Kristoren legean argitu giñuztela, orduraño basa-gizonak bagiña bezela, eta giza-arteko diña izatea ez oyei zor bagienduke bezela. Nik oraiñ astirik ezdaukat erausi eta gezur oei eranzuteko, eta gai onetan gipuzkoatarrai kendu nai zayen onra ostera biurtzeko; onetarako ordu luzeak bear lirakealako; ordea ez naiz geldituko esan gabe, euskaldunak gauza oek jakitea guztiz on litzekeala, eta egiten dan baño lan geyago, eta inskribatzen diraen baño zenbait liburu geyago, onetarako gai diran euskal-inzkribitzalleak inzkribatu bear litzukeela; ezagutzen ez dan gauza maitatzen ez dalako: *Nihil cognitum, quin præcognitum*, bada zenbat ela geyago gure kondaira ederra ezagutu, anbat eta geyago litzake maitatu.

3.^a Mundua ichutuaa zago munduko gobernatzalleén gañ *sozialismoak* ezpata jasorik dauka; askori *sozialismoak* lea kentzen die eta soseguz bizitzen lagatzen ez die, eta erremedio billa dabilta; eta esan dedan bezela bai mundua eta bai munduko gobernatzalleak ichutuak ezbalende, konturatu bear lirake, probintzi batzuek munduko baztarcho batean badaudela, euren lege berezi eta apartekoai eskerrak, *plaga* oen beldurrik gabe bizi direnak *Sozialismoak* zer eskatzendu? langillea anparatu dedilla; langilleai, langillearen umeai eta langillearen guraso zarrai zer jana, eta zer jantzia eta eche legor bat iltzeko ezaitzela palta, eta au ezkatzean ez dute geiegi eskatzen. Ori logratzeko, Aita Santuagandik asita, beste jakintsu asko ari dira lanean erremedioren bat arkitu ote dediñ; orretarako, Aita Santu Leon XIII-garrenak, *De conditione opificum* deritayon *Enciclica* illezkorra inzkribatu zuan; ordea egiñalak-egiñ, mundu guztia gar bizian daukan izurre ori sendatzeko sendagai aproposik ezin arkitu dute.

Eta Gipuzkoako Diputazio prestu eta zinzoak berriz bera *Aorroen kucha* deritzayon orrekin, jayotzen diran aur guziai peseta bat jarriaz ematen dien liburucho oyeekin, zintzoak eta gordetzallean izaten erakutziaz; zartasuna anparatzeko jarririk daukan beste modu orrekin, nekazaritzari eta ganaduai dagokien urteoro egiten dituan agerpen oyeekin, ganaduak ondutzeko eta ugaldutzeko Fraisoron jarri duan eche galant orrekin, langillea bearsua, nekazaria, aurtasuna eta zarzaroa anparatzeko artu dituan beste milla neurriekin; orrezaz gañera bideak egiteko, elizak konpontzeko, baserri-echeak jasotzeko erit-echeak jartzeko, erriak diru eskasian dabilzanean, Diputazioak bere aorroen kucha onda-gabe ori irekitzen du, eta palta zaitena oparo ematen die;

interesa apur batekin, euneko bost pagatute, ogeita amar urteren epean, zar guzia kito egiten die. ¿Konturatu zerate mesedeau, zer mesede ongarrria dan? Begiraldi bat eman zazute mundu guzira, premi esturén batian arkitzen zeratenean euneko aiñ guchi pagatuta, denbora jakin batean kito egiteko modurik arkitzen dezuen; ez dezue, ez, arkituko; diru billa asten bazerate, euneko bost, sei edo geyago eskatuko dizue, eta ori ere ez nola nai, ez bada zuen-eche, soro, baso, ganadu edo zerbait balio duan gauza piadore jarriaz; eta zuek doakabeak baldin premi esturen bat badatorkizue eta korriturik ezin pagatu badezue, ganadu, eche, lur eta basorik gabe gelditu bearrean izango zerate, egundañoko ezbearrak ortik sontuaz.

Langillea euskal-errian bezela iñnere anparatzen ez da; emen lana, eskuarki inoiz palta-gabe dago, eta langillea zintzoa bada eta zerbait sobradu albadezake, orra aorroen kucha segurua, euneko iru guchienez, eta bost umeai eta bearsuai ematen zayena; eta nai dezunean, edo premian arkitzen zeranean zerbait atera nai badezu, mutur beltzik ekusi gabe, zordisunarekin asarratu gabe, galtzeko arriskurik gabe, bear dezuna eta eskatzen dezuna emango dizute; eta zartzen bazera, eta zure zartasuna igarotzeko modurik ez badezu, orra nun jartzen dizuten eritche galant eta ederrak zartasuna gozatzeko eta eritasuna sendatzeko bear diran gauza guziakin; karidadeko monjak amarik biguñenak baño obeto kontu egingo dizutenak, medikuak, sendagayak, oe zuri biguña, pasaa-lekuak, itz batean, jauregirik ederrenai inbidirik ez dien eche chukunak. Gañoen alde, bearsuen alde, langilleen alde ¿zer geyago egin liteke?.... Gure probinziako buru direnak, onelañe daukate erabakirik *sozialistak* eskatzen dutena: beraz emen, euskal-errian, *sozialismoa* erausia eta gezurra da, emen *sozialisten* bure egiten dutenak atzeritik etorritako itzontzi, berrichu eta alper batzuek besterik ez dira, eurak lanik egin gabe, langilleen izardiaren kostuz bizi nai dutenak, bada ekusi degun bezela, langillearen anparorik onena diputazioa da. ¡Al euskaldun langilleak zintzoago jokatuko batuteke, tabernatarako apizio guchiago balego, kristau on bati dagokion bizimodua egingo baluteke, asteoro edo illero *sozialista* oyen buru diranai ematen diotena aorroen kucha, edo zartzaroa anparatzeko jarririk dagoanean utziko baluteke, oyen bizimodua, sasoya duten bitartean; eta baita ere zartzaroen beste modutakoa izango litzake, bai, beste zakur batek zaunka egingo lieke.

Diputazioak egiten duana egitean arritu bear ezdegu, bada denbora guzietan, emengo lege zarretan ekusten dan bezela, gende komunaren ontasun eta ontasunai begiratu izan zayo, eta onetan beste gauzarik

egiten ez da, ez bada aurrekoetatik ikasi zuaena oñean gorde. ¡Eta gelditu zaigun eskubide apurrakin, eta gure lege eta fueroen itzal batekin, oraindik ere aitiñ zorionekoak bagera, eta gure zorionak askoren inbidia sorierazitzen badu!..... ¿Zer ote zan osotoro gure fuero eta lege guzien jabe giñanean?.....

4.^a Ni emen luzaro ezin nagoke, eta ezta nai adiña gai onetan mintzatuere. Jakin nai duanak, lenagoko gipuzkoako diputazioak zer egin izan duten gure erlijioaren alde, probinziaren alde eta gure lurrian bizi diranen alde, Gipuzkoako Fueroen Liburura irakorri beza, eta au ekusiko du, Elizak fedeko egitzat, Maria guztiz Santaren Sortze Garbia azaldu baño lenago, juramentu egiten zala gure batzarreetan zeruko Erregiñaren doe au eskudatzeko; an ekusiko du, diputaduak batzarrera zetoztenean bi Eliz-funzio egiten zirela, bata Ama Birjiñaren eta bestea Loyolako Ignazio Santuaren onran. Ekusiko du blasfemoak edo birangilleak iñillerazotzeko nolako kastiguak izendatzen zituzten; ekusiko du gure oiturak garbiak, kristau onbati dagokiou bezelakoak izan zitezen, neurri egokiak artzen zituztela, an ekusiko du probintzi onetan buru egiten zutenak oso zintzuak eta kontuzkoak zirala euskal-arraza odol-garbikoa, eta ez judu, jentill eta kristau-etziranakin nastua izan zedin.

5.^a Emen soldaduzka eta kintarik ezan, ordea España estuasunen oatean arkitzen zanean, Erregek erregutzen zion probinziari, (euskaldunak, ondo entzun: erregutu egiten zion eta ez agindu) eta probinziari ondo iduritzen bazitzayon, gerra-gizonak, berak izendatutako buruzari edo kapitanakin biraltzen zizkion; alako moduz, españiak ezdaukala bere kondairan erri glorioso bat inzkribaturik, eta euskaldunen laguntza bage egiñik. Itz egin dezatela bestela Kobadongak, Nabas Tolosakoak, San Marzialek, Afrikak eta oek baño lenago Erromanoak eta Godoak; itz egin dezatela Olandesak eta Inglesak, euskaldunakin bakar bakarrik, (ordea españiaren alde) ichazoz izan dituzten jazarrak; itz egin dezala, besterik aipatugabe Ondarrabiko uri errutsu, pizkor ta leyalak, milla seireun ta ogeita emezortzi garreneko urtean, irurogei ta b¹ eguneez, Uzta-illaren bigarrenetik asita Agorraren zazpigarren eguneraño, ichasoz eta legorrez inguratuta egon zanean, bertako seme inuar-suak, erria gordetzeko egin zituzten peleak, kontuan arturik, pranzasak Ondarrabia legorrez inguratu zutela ogei ta amar milla soldadu oñezkok, amabi milla zaldizkok, oei dagokien artilleriaz, eta ichazoz berriz ontzidi aundiak, eta erri barruan etzeudela bi milla gizon besterik. Abuztuaren ogeita bederatzi-garren eguna izan bear zuan, oso utsegiñik

ezbanago; etorri zan murruean aurrera pralle dominiko bat eta esan zien erria dependitzen zutenai: «errutzu portatu zerate, naicoa eta geyago egin dezute, ordea gu asko gera eta azkenean ere errenditu bearrean izango zerate, eta suta gar errian sartu baño lenago, kontuak atera itzartzute: eskatzen dezuten guzia emango zaizute, zuen lege zar, fuero eta eskubide guziak ere errespetatuko ditugu, ireki zaiguzute bada ateak, zuen eta gure odol-iñurizeak alperrikakoak izan ez ditezen, eta ondo-rengo kalteak negarbiderik jarri ezdezaten:» «Zoazkit ortik pralle bene-ragarria, Butron alkate leyalak eranzun zion; gu euskaldunak ezezik espagnolak gera; sar zaitazte albadezue, ordea sartzen bazerate, erri barruan gorputz-illak eta arriak besterik arkituko ez dezue». Onelako-šeak ziran garai artan euskaldunak, onelakošea izanda beti euskal-arraza.

6.^a Emen inork pecharik eta sisarik ezin jarri zezakean: emen genduan gere *paseforala* zeritzana, goitik etortzen ziran aginduak, diputazioaren baimena bage kunplitzen eziranak, eta aduanak berriz Ebro-tik aruntz. Euskaldun bat Erregeren aurrera ezin deitu zitekean, baldin aurrez iru *oidore* izendatzen ziranak baimena firmatzen ezbazuten. Korrejidorea zan erregeren izenekoa, eta gai onetan, ona Fueroen 29-garren tituloak zer dion: «Baldin korrejidore edo onen *meiño* (1) batek, erregeren aginteren bat kunplitzeko apuko edo aitzakiaz, Diputazioaren baimena gabe, probintzi onek gozatzen duan fuero edo eskubideren bat ausi nai badu, gipuzkoatarren bat beartuaz edo preso artu nayaz, ez dezakiola laga bere gogoa egiten, ez dedilla kunplitu onen agintea, eta leyatzen bada, indarrez norbait beartu nayan, indarrarekin indarrari eranzun bezayo, ala bear izan ezkerio bizia keubekio, ill bedi; eta bizia kentzen dionari edo eritu duanari, beste probintziako erri guziak lagundu bezayote, eta ill dana edo eritu dana bere koztuz sendatu eta Konpon dedilla.

7.^a Eta beste zenbait onelako eskubide, lege eta fuero gure Gipuzkoako probinzi maiteak gozatzen zituan. Ekuszazute bada, gipuzkoatarrak zeñen libreak, zorionekoak eta gure oitura zar eta ederren jabeak giñan; zeñen lasai, sosegu eta inñoren beldur gabe gure mendi gogoangarri oetan bizi giñan; orduan gure kantu biguñak gogoz enzuten ziran, orduan gure mutill gazteak oyu eta irrintzi luze eta alayak arkaitz batetik bestera egiten zituzten; orduan gure emazteak ezatki zuria jan-zita eta neskacha gazte eder mardulak gona gorri eta ille mototsak

(1) Badira oraíndik probintzi onetan erriak aguazilari *meiñoa* deitzen diotenak.

oñetaraño zinzilizka zituztela euren salto eta dantza onestoakin gure basoak, oyanak, soroak, zelayak eta baserri-echeak alaitzen eta alegeratzen zituzten; orduan bai Elizamburu prestuak arrazoyaz konta zezakeala:

Ekusten duzu goizean
argia hasten danean
menditto baten gainean
etche ttikitto aintzin churi bat
lau haitz handiren artean
itturrito bat aldean
chakur churi bat atean.....
Han bizi naiz ni bakean.

Ordea orain gure mendiak, gure basoak, zelay eta arkaitzak, gure emazte, mutill eta neskacha gazteak triste daude; gure basoetako egaztichoak ere len bezin gozo eta alay ez dute kantatzen, eta eche-atariko zakurrak ere, etsayez inguratuta, galdu-gorderik ez baleuka bazela, iñori zaunkarik egitea oitu da; eta ori guztia gertatzen da, Elizanburuk aipatu duan aritz zar eta aundiaren itzala eta gerizpea palta zaitelako, gure lege, fuero eta oitura santuen zumoa igortu dalako..... ¿Eta onela iraun bear degu? ¿Zer? Emakumeak bezela negar egiñaz, ez gera oraituko euskal arrazako gizonak gerala?..... Alabaña, aitortu bear det, alako esnatze-modu bat gure probinzian senti dedala, eta onek poztutzen nau. Oraindik ere emen fuero-zaleak badira; askok ezagutu dute, gure lege zarrak defenditzean bakarrik euskal-erriaren zoriona dagoala. Eta esnatze au ez da emen bakarrik senti; Katalunian eta beste zenbait lekutan ere, probinziak euren anziñako lege zarren aranaz bizitzea zenbait balio duan ezagutu dute; oek ere esnatu dira eta irmoki lan egiten dute. ¡Ojala oyek egiten duten lanaren erdia egin albagentzake! Alkargaitean denok, bada alkartzean eta denok bat izatean dago gure garaimena. Esan dirate katalan pizkor eta errutzu ayetako batzuek gure euskal pestak ekustera onera etorri direla; nik leku santu onetatik, gipuzkoetarren izenean ongietorria eman eta nere biotzaren erdiko agurrik amoriotsuena egiten diet, eta zuei, euskaldun prestuai erregutzen dizuet arritatzutela, eta obsekiatuitzatzutela zuen anai eta senide maitagarriak bezela; emendik euren lurrera dijuaztenean esan dezaten: «euskaldunak oraindik gizonak dira; Gernikako arbolak ez dauka erortzeko arrisku eta beldurrik; euskaldunak gogor kantatzen dute:

«Etzera eroriko
arbola maitea
baldin portatzen bada
Euskaldun gentea.»

Eta guk, aritz orren aurrean belaunikatuta esan dezagun.

«Zaude bade zutikan
orain da denbora
eroritzen bazera
arras galdu gera.»

Ordea oroitu gaitean gurutzeak arbola ori besarkatzen duala: ¿Arbola bai eta gurutzerik ez? ori ezin gerta diteke. Arbola orri bere doaitasun guzia gurutzetik datorkio; gurutzeak sostentzen du; gurutzea kentzen bada, arbola lurrera dator. Maitatu ditzagun, bai, arbolak adierazten dituan gure lege zarrak, gure fuero beneragarriak, gure oitura eder garbiak, gure libertade guziak, bana maita dezagun oyen guzien gañ gurutze santua, bada gurutze orretan ill zan Jaungoikoak gu eta gure gurasoak morrontza eta uztarpetik libratu ginduan: *Dominus Deus noster, ipse eduxit nos et patres nostros de terra Egypti et de domo servitutis*. Onela bakarrik logratuko degu arbolak adierazten dituan legeak gordetzea, eta orain emen, lurrean, eta gero zeruan betiko zorioneakoak izatea... eta au da, nere euskaldun maiteak, biotz-biotzetik opa dizutedana..... Amen.





